Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

4156

AGINDUA, 2010eko irailaren 8koa, Kulturako sailburuarena, Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako 2010eko dirulaguntzen deialdia egiten duena.

Irailaren 30eko 164/2008 Dekretuak (uztailaren 13ko 200/2010 Dekretuak aldatu duenak) Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako diru-laguntzak emateko modua arautzen du.

Aipaturiko dekretuaren 5. artikuluan adierazten denez, araututako diru-laguntzen deialdia urtean urteko ekitaldi ekonomikoan egin eta jakinaraziko da Kulturako sailburuaren agindu baten bidez. Deialdian ondokoak zehaztuko dira: diru-laguntzak finantzatzeko aurrekontuko zuzkidura, aurkeztutako programak edo jarduerak burutzeko epealdia, eskabideak aurkezteko tokia eta epealdia, entitate eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa, eta, azkenik, kasuan kasu esleitutako diru-laguntza justifikatzeko epealdia eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Aipatutako dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, agindu honen bidez gorago aipatutako kontu horiek guztiak zehaztuko dira, bertan ezarritako dirulaguntzen deialdia 2010eko ekitaldian aplikatzeko.

Halaber, eta kudeaketako irizpide gisa, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien (IKT) erabilera sustatu nahi da, laguntzak kudeatzeko prozesuen izapideak telematikoki egin ahal izateko.

Horri jarraiki, hauxe

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea hauxe da: Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako 2010eko diru-laguntzetara biltzeko dei egitea. Diru-laguntza horiek emateko modua irailaren 30eko 164/2008 Dekretuak arautzen du (uztailaren 13ko 200/2010 Dekretuak aldatu du).

2. artikulua.– Diru-zuzkidura.

1.– Agindu honen bidez deitutako 2010eko diru-laguntzak finantzatzeko aurrekontu orokorra hirurehun eta berrogeita hamar mila (350.000) eurokoa da.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

4156

ORDEN de 8 de septiembre de 2010, de la Consejera de Cultura, por la que se convocan para el año 2010 subvenciones destinadas a fundaciones y asociaciones con dependencia orgánica de partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco.

El Decreto 164/2008, de 30 de septiembre, modificado por el Decreto 200/2010, de 13 de julio, regula la concesión de subvenciones a fundaciones y asociaciones con dependencia orgánica de partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco.

El artículo 5 del mencionado Decreto establece que anualmente, mediante Orden de la Consejera de Cultura, se convocarán las ayudas reguladas en mismo, concretándose en aquélla las cuestiones relativas a la dotación presupuestaria global destinada a financiar las ayudas convocadas, al plazo de ejecución de los programas o actividades presentados, al lugar y los plazos para la presentación de las solicitudes, a la documentación a aportar por las entidades solicitantes y, por último, al plazo y la documentación a aportar para la justificación de la ayuda concedida.

Conforme a lo dispuesto en el referido Decreto, mediante la presente Orden se concretan dichas cuestiones para la aplicación durante el ejercicio 2010 de la convocatoria de ayudas establecida por la norma mencionada.

Así mismo y como criterio de gestión, se pretende estimular el recurso a las nuevas tecnologías de la información y comunicación (TIC), posibilitando la tramitación telemática de los procesos de gestión de las ayudas.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

El objeto de la presente Orden es la convocatoria para el año 2010 de subvenciones destinadas a fundaciones y asociaciones dependientes orgánicamente de partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco, reguladas en el Decreto 164/2008, de 30 de septiembre, modificado por el Decreto 200/2010, de 13 de julio.

Artículo 2.– Dotación económica.

1.– Para el ejercicio 2010, la dotación presupuestaria global destinada a financiar las ayudas convocadas por la presente Orden es de trescientos cincuenta mil (350.000) euros.

2.– Uztailaren 13ko 200/2010 Dekretuak aldatu duen irailaren 30eko 164/2008 Dekretuko lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz, eta eskatutako laguntzen guztirako zenbatekoa kontuan hartuta, eskaerak ebatzi aurretik aurreko puntuan zehaztutako kreditua aldatu ahal izango da Kultura Sailaren beste programa batzuetan agortzen ez diren aurrekontuko kopuru erabilgarriaren arabera. Hala gertatuz gero, aldaketaren berri emango da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den Kulturako sailburuaren agindu baten bitartez.

3. artikulua.– Programak edo jarduerak burutzeko epealdia.

Agindu honen babesean diru-laguntza jasotzeko aurkezten diren programak edo jarduerak 2010eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egin beharko dira nahitaez.

4. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epealdia.

Agindu honen babesean eskabideak aurkezteko epealdia hilabetekoa izango da, aginduak ondorioak sortzen dituen egunetik aurrera.

5. artikulua.– Aurkeztu beharreko eskabideak, justifikazioak eta dokumentazioa, kasuan kasukoa.

1.– Eskaera-izapideak bertatik bertara (paperean) aurkeztea:

a) Eskabideak eta justifikazioak toki hauetan aurkez daitezke:

a.1.– Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Erregistroa: Donostia kalea 1 - Lakua I, 2. solairua - 01010 Gasteiz.

a.2.– Eusko Jaurlaritzako Erregistro Orokor Nagusia: Donostia kalea 1 - 01010 Gasteiz.

a.3.– Eusko Jaurlaritzaren Bilboko egoitza ofizialeko Erregistro Laguntzailea: Kale Nagusia, 85 - 48001 Bilbao.

a.4.– Eusko Jaurlaritzaren Donostiako egoitza ofizialeko Erregistro Laguntzailea: Andia kalea, 13 - 20004 Donostia.

a.5.– Herritarren Arretarako Bulegoak.

a.6.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren beste erregistro orokor nagusi eta laguntzaileak (72/2008 Dekretua, apirilaren 29koa; EHAA, 102. zk., 2008ko maiatzaren 30ekoa).

b) Eskabideak eta justifikazioak bi modutara aurkez daitezke: zuzenean edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen (hemendik aurrera, AJL-APE) azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako bideetako bat erabiliz:

b.1.– Eskabideak: eredu normalizatua erabili behar da, eta bertako atal guztiak bete (I. eranskina); horre-

2.– Conforme a lo dispuesto en la Disposición Adicional Primera del Decreto 164/2008, de 30 de setiembre, modificado por el Decreto 200/2010, de 13 de julio, a la vista de la cuantía total de las ayudas solicitadas, el crédito anteriormente mencionado podrá ser modificado en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Cultura y con carácter previo a la resolución de las mismas. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante Orden de la Consejera de Cultura que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

Artículo 3.– Plazo de ejecución de los programas o actividades.

Los programas o actividades para los que se solicite subvención al amparo de la presente Orden, deberán, en todo caso, realizarse entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2010.

Artículo 4.– Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes al amparo de la presente Orden será de un mes a partir de que la misma surta efectos.

Artículo 5.– Presentación de solicitudes, justificaciones y documentación en cada caso.

1.– Tramitación presencial:

a) Las solicitudes y justificaciones podrán presentarse en los sitios siguientes:

a.1.– Registro del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco: c/ Donostia-San Sebastián 1 - Lakua I, 2.ª planta - 01010 Vitoria-Gasteiz.

a.2.– Registro General Central del Gobierno Vasco: c/ Donostia-San Sebastián 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

a.3.– Registro Auxiliar de la sede oficial del Gobierno Vasco en Bilbao: c/ Gran Vía 85 - 48001 Bilbao.

a.4.– Registro Auxiliar de la sede oficial del Gobierno Vasco en Donostia-San Sebastián: c/ Andia 13 - 20004 Donostia-San Sebastián.

a.5.– En las Oficinas de Atención Ciudadana.

a.6.– Otros registros de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi (Decreto 72/2008, de 29 de abril, BOPV n.º 102 de 30 de mayo de 2008).

b) Las solicitudes y justificaciones pueden entregarse bien directamente, bien utilizando cualquiera de los procedimientos previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (en lo sucesivo LRJ-PAC):

b.1.– Solicitudes: mediante modelo normalizado, debidamente cumplimentado en todos sus términos

kin batera dokumentazio osagarria aurkeztu behar da (II. eranskina).

b.2.– Justifikazioak: eredu normalizatua erabili behar da, eta bertako atal guztiak bete (III. eranskina); horrekin batera dokumentazio osagarria aurkeztu behar da (IV., V. eta VI. eranskinak).

c) Eskabidea edo justifikazioa posta-bulego batean aurkeztu nahi izanez gero, kartazal irekian aurkeztu behar da, posta-funtzionarioak data eta zigilua jar diezazkion inprimakiari.

2.– Laguntzen izapideak elektronikoki aurkeztea: Eskabidea eta justifikazioa.

Laguntza hauen izapideetan (eskabideak zein justifikazioak aurkezteko) baliabide elektronikoak erabiltzeko modua ondoko bi dekretu hauetan arautu da: 232/2007 Dekretua, abenduaren 18koa, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren prozeduretan baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak nola erabili behar diren arautu duena; 72/2008 Dekretua, apirilaren 29koa, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta beraren erakunde autonomoen erregistroen sorrerari, antolaketari eta funtzionamenduari buruzkoa.

3.– Izapideak bertatik bertara (paperean) zein telematikoki aurkeztuz gero:

a) Laguntza-eskabideak agindu honen I. eranskinean argitaratutako ereduari lotu behar zaizkio eta justifikazioak III. eranskinean argitaratutako ereduari. Eskabideak eta horien dokumentazio osagarria (II. eranskina) zein justifikazioak eta horien dokumentazio osagarria (IV., V. eta VI. eranskinak) Kultura Saileko Zerbitzu zuzendariari bidali behar zaizkio.

b) Laguntza-eskabideak (I. eranskina) eta haiekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa (II. eranskina) eta justifikazioak (III. eranskina) eta beren dokumentazio osagarria (IV., V. eta VI. eranskinak), haien inguruko informazioa eta aurkezpenerako prozedura kulturaren alorreko eskumena daukan organoak euskadi.net atarian daukan egoitza elektronikoan argitaratuko dira.

c) Entitate eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkez ditzakete laguntza-eskabideak eta justifikazioak eta haiei lotutako dokumentazioa. Orobat, laguntza-eskabideen eta justifikazioen aurkezpenaren ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan, entitate eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeko 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarri den bezala.

d) Eskabideei eta justifikazioei lotutako betekizunak bete direla eta behar diren agiriak aurkeztu direla frogatzeko modua kulturaren alorreko eskumena

(véase el anexo I), junto a la documentación complementaria (véase el anexo II).

b.2.– Justificaciones: mediante modelo normalizado, debidamente cumplimentado en todos sus términos (véase el anexo III), junto a la documentación complementaria (véanse los anexos IV, V y VI).

c) En el caso de optarse por presentar la solicitud o la justificación en una oficina de correos, deberá realizarse en sobre abierto para que el impreso de solicitud o de justificación sea sellado por el funcionario/a de correos antes de certificarla.

2.– Tramitación electrónica de las ayudas: solicitud y justificación.

La utilización de medios electrónicos en la tramitación de estas ayudas, tanto para las solicitudes como para las justificaciones, atenderá a lo establecido en el Decreto 232/2007, de 18 de diciembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos, informáticos y telemáticos en los procedimientos administrativos y el Decreto 72/2008, de 29 de abril, de creación, organización y funcionamiento de los registros de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos.

3.– Elementos comunes a la tramitación presencial y telemática.

a) Tanto las solicitudes de ayuda, que se ajustarán al modelo que se publica como anexo I a la presente Orden, junto a la documentación complementaria (véase el anexo II), como las justificaciones, que se ajustarán al modelo que se publica como anexo III a la presente Orden, junto a la documentación complementaria (véanse los anexos IV, V y VI) deberán dirigirse al Director de Servicios del Departamento de Cultura.

b) Tanto Las solicitudes de ayuda (anexo I) y demás documentación (anexo II) como las justificaciones (anexo III) y demás documentación (anexos IV, V y VI), así como la información y procedimiento relativas a ambas estarán disponibles en la sede electrónica del órgano competente en materia de cultura en euskadi.net.

c) Las entidades solicitantes podrán presentar tanto la solicitud de ayuda como la justificación, junto con la documentación necesaria que se acompañe en cada caso, en el idioma oficial de su elección. Así mismo, en las actuaciones derivadas de la solicitud de ayuda, de la presentación de la justificación y durante todo el procedimiento, se utilizará el idioma elegido por la entidad solicitante, tal y como establecen los artículos 5.2.a) y 6.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización de Uso del Euskera.

d) La forma de acreditar los requisitos/la documentación solicitados/solicitada tanto para la presentación de la solicitud como para la de la justificación

daukan organoak euskadi.net atarian daukan egoitza elektronikoan argitaratuko diren jarraibideetan zehaztuko da.

e) Eskabide-formularioko zein justifikazioko atal batean laguntza eskatzen duen entitateak zein onuradunak baimena eman dezake agiri batzuk laguntzak kudeatzen dituen organoak eskuratzeko edo egiaztatzeko. Baimen horrek ez ditu ezertan eragotziko Administrazio Publikoaren egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko ahalmenak.

f) Eskabide-formularioan zein justifikaziokoan zehaztu behar da zein frogagiri edo bestelako agiriren ordez egiten duen eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpena. Halako kasuetan entitate eskatzailearen legezko ordezkariak edo laguntzaren onuradunak agiri bat sinatzen du adierazteko betetzen dituela indarreko araudian diru-laguntza (edo diru-laguntzaren bigarren zatia) jasotzeko ezarritako betekizun guztiak eta badauzkala hori frogatzen duten agiriak (laguntza eskatzen den kasuetan baita diru-laguntza gozatzen duen aldi osoan betekizun horiek betetzeko konpromisoa onartzen duela ere bai), bai eta adierazitako guztiaren erantzukizuna onartzen duela ere.

g) Erantzukizunpeko adierazpenean berariaz eta modu argi eta zehatzean azaldu behar dira betekizunak.

h) Erantzukizunpeko adierazpen bati eransten zaion datu, azalpen edo dokumenturen bat zuzena ez bada, edo faltsua bada, edo haietako bat falta bada, prozedura etengo da horren berri jakin bezain laster, eta baliteke erantzukizunak gertatzea ere (penala, zibila edo administratiboa).

Gainera, gorago azaldutakoa adierazteko ematen duen ebazpenean Administrazio Publikoak ezarri ahal izango du interesdunak diru-laguntza itzuli behar duela, bidezkoa izanez gero.

4.– Eskabidea aurkezteko bitarteko elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzeak ez du ekarriko berekin prozedurako hurrengo izapideetan ere nahitaez bitarteko horiek erabili behar izatea. Gainera, entitate interesdunak jakinarazpenak bitarteko telematikoz egiteko emandako adostasuna baliogabetu ahal izango du; hori egin nahi izanez gero, organo eskudunari adierazi beharko dio eta aurrerantzean jakinarazpenak non jaso nahi dituen zehaztu beharko du, administrazio prozeduretan baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak nola erabili behar diren arautu duen abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuko 4.4 eta 21.2 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, hurrenez hurren.

6. artikulua.– Eskabideak zuzentzea eta justifikaziorako aurkeztutako dokumentazioa osatzeko edo argitzeko errekerimendua.

se especificará en las Instrucciones que se publicarán en la sede electrónica competente en materia de cultura en euskadi.net.

e) Tanto las solicitudes como el formulario de justificación incluirán la posibilidad de que tanto la entidad solicitante de la ayuda como la beneficiaria de la misma consienta expresamente que parte de la documentación sea obtenida o verificada por el órgano gestor de la ayuda, sin perjuicio de las facultades de comprobación, control e inspección que tiene atribuidas la Administración Pública.

f) Tanto el formulario de solicitud como, en su caso, el de justificación incluirán qué acreditaciones/documentaciones podrán ser sustituidas por una declaración responsable, como documento suscrito por el/la representante legal de la entidad solicitante o, en su caso, beneficiaria de ayuda, en el que manifestará, bajo su responsabilidad, que cumple con los requisitos establecidos en la normativa vigente para acceder a la subvención o, en su caso, para percibir la segunda parte de la subvención adjudicada, que dispone de la documentación que así lo acredita y que, en el caso de la solicitud, también se compromete a mantener su cumplimiento durante el periodo de tiempo inherente al disfrute de la subvención.

g) Los requisitos deberán estar recogidos de manera expresa, clara y precisa en la correspondiente declaración responsable.

h) La inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, en cualquier dato, manifestación o documento que se acompañe o incorpore a una declaración responsable, determinará la imposibilidad de continuar en el procedimiento desde el momento en que se tenga constancia de tales hechos, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar.

Asimismo, la resolución de la Administración Pública que declare tales circunstancias podrá determinar la obligación del interesado/a de reintegro si fuera el caso.

4.– El empleo de medios electrónicos, informáticos y telemáticos en la realización de la solicitud no obligará a su utilización en los sucesivos trámites del procedimiento y así mismo, la entidad interesada podrá revocar su consentimiento para que la notificación se practique por medios telemáticos, en cuyo caso deberá comunicarlo al órgano competente y señalar un lugar donde practicar las notificaciones, de conformidad con lo establecido en los artículos 4.4 y 21.2, respectivamente, del Decreto 232/2007, de 18 de diciembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos, informáticos y telemáticos en los procedimientos administrativos.

Artículo 6.– Subsanación de las solicitudes y requerimiento de documentación complementaria a la presentada para la justificación o, en su caso, aclaratoria de la misma.

1.– Baldin eta eskabide-orriarekin batera aurkeztutako dokumentazioa aztertzean Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritza ohartzen bada agiriren bat falta dela edo akastuna dela, epealdi bat emango dio eskatzaileari izapideak burutzeko falta dena ekartzeko edo akatsa zuzentzeko: hamar egun baliodun bertaratuz gero (dokumentazioa paperean entregatuz gero), eta egutegiko hamar egun telematikoki eginez gero, akatsaren edo faltaren berri ematen dion jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera; gainera, azaroaren 26ko 30/1992 AJL-APEren 42. eta 71. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, ohartaraziko dio hori egin ezean eskabidean atzera egin duela ebatziko dela (ebazpena jakinaraziko zaio) edo izapidea egiteko eskubidea galdu duela adieraziko dela.

2.– Justifikaziorako aurkeztutako dokumentazioa osatzeko edo hori argitzeko errekerimendua egin behar izanez gero, eguneko epealdi bat emango zaio eskatzaileari hari erantzuteko:, hamar egun baliodun bertaratuz gero (dokumentazioa paperean entregatuz gero), eta egutegiko hamar egun telematikoki eginez gero, eskatutakoaren berri ematen dion jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera; gainera, jakinarazpenean eskatzaileari azaldu behar zaio errekerimenduari erantzun ezean uztailaren 13ko 200/2010 Dekretuak aldatu duen irailaren 30eko 164/2008 Dekretuaren 15. artikuluak aipatzen dituen ez-betetzeetako bat gertatuko dela.

Hori gertatu dela egiaztatzen bada, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera eta bertan agindutakoa bete ondoren, Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzari ezin eskatu izango zaio ordaintzeko diru-laguntza, eta, behar den kasuetan, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio jasotako diru-kopuruak eta haien legezko korrituak.

Aurreko paragrafoan adierazitako itzulketaz gainera, balizko zigor-prozedura ireki daiteke ikusten bada Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren laguntza eta diru-laguntzei buruzko xedapenak urratu direla, lehen aipaturiko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera.

3.– Berariazko ebazpena (eskatzaileak atzera egin duela zein laguntza itzuli behar duela agintzen duena) kasu bakoitzean ezarritako epealdia amaitu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen jakinaraziko da.

1.– En el supuesto de que, analizada la documentación presentada junto con la solicitud, la Dirección de Servicios del Departamento de Cultura observase que ésta es incompleta o defectuosa, se concederá, en su caso, un plazo de diez días, hábiles para la tramitación presencial y naturales para la telemática, a contar desde el día siguiente al de la notificación de la comunicación en que se ponga en conocimiento de la entidad solicitante los defectos observados, para su subsanación, con la indicación de que, de conformidad con los artículos 42 y 71 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre (LRJ-PAC),transcurrido dicho plazo sin que se haya procedido a la referida subsanación, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución que le será notificada, o se le declarará decaída en su derecho al trámite correspondiente.

2.– En el supuesto de requerimiento de documentación complementaria a la presentada para la justificación o, en su caso, aclaratoria de la misma, se concederá, en su caso, un plazo de diez días, hábiles para la tramitación presencial y naturales para la telemática, a contar desde el día siguiente al de la notificación del requerimiento en que se ponga en conocimiento de la entidad solicitante la documentación solicitada, para su remisión, debiendo la notificación ir acompañada con la indicación de que, si así no lo hiciera, la entidad incurriría en uno de los supuestos de incumplimiento a los que alude el artículo 15 del Decreto 164/2008, de 30 de septiembre, modificado por el Decreto 200/2010, de 13 de julio.

La constatación de la existencia de uno de estos supuestos determinará, en los términos y previo cumplimiento de lo previsto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, que no será exigible a la Dirección de Servicios del Departamento de Cultura el abono de la subvención, y en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

El cumplimiento del deber de reintegro señalado en el párrafo anterior no supondrá exoneración de las consecuencias que pudieran derivarse del eventual procedimiento sancionador que pudiera seguirse contra la entidad infractora de las disposiciones relativas al régimen de ayudas y subvenciones otorgadas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, conforme a lo previsto en el precitado Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre.

3.– En todo caso, bien la resolución expresa de desistimiento o bien la de inicio del procedimiento de reintegro, se notificará en el plazo máximo de un mes contado a partir del día siguiente al de la finalización del plazo de diez días, hábiles para la tramitación presencial y naturales para la telemática, establecido en los apartados 1 y 2.

7. artikulua.– Jakinarazpenak, izapideak egiteko moduaren arabera.

1.– Izapideak bertaratuta eginez gero (papera erabilita), jakinarazpena entitate interesdunak, edo haren legezko ordezkariak edo baimendutako pertsonak, Postaren hartu-agiria sinatzen duenean egintzat joko da, eta, egintzaren arabera, kasuan kasu ezarritako epealdia hura jaso eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

2.– Aldiz, administrazio prozeduretan baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak nola erabili behar diren arautu duen abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuko 22.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, izapideak baliabide telematikoen bitartez eginez gero, jakinarazpena entitate interesdunak, edo haren legezko ordezkariak edo baimendutako pertsonak, jaso izana elektronikoki sinatzen duenean egintzat joko da.

Indarrean dagoen legeriak ezarritako hamar (10) eguneko epealdian, jakinarazitako egintza aipatutako dekretuko 23. artikuluan aipatzen den helbide elektronikoan interesdunaren edo haren legezko ordezkariaren edo baimendutako pertsonaren esku jartzen denetik zenbatu beharrekoan, interesdunak haren edukia eskuratzen ez badu, jakinarazpena ezetsitzat joko da. Hori horrela izanda, izapidea egindakotzat joko da eta prozedurak aurrera egingo du, salbu eta ofizioz edo hartzaileak jakinarazita, jakinarazpena ikustea teknikoki edo materialki ezinezkoa izan dela egiaztatzen bada.

8. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzeko epealdia.

Emandako diru-laguntza justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko epealdia bi hilekoa izango da diru-laguntza jaso duen programa edo jarduera bukatzen den egunetik aurrera, eta ezinbestekoa da 2011ko otsailaren 28rako aurkeztuta egotea.

9. artikulua.– Justifikaziorako epealdia luzatzea.

1.– Ofizioz edo entitate interesdunak eskatuta, diru-laguntza ematen duen organoak justifikazioa aurkezteko epealdia luzatzea erabaki ahal izango du, baina bi baldintzarekin: luzapenaldia ezin da izan justifikazioa aurkezteko epealdiaren erdia baino luzeagoa eta ezin zaie kalte egin hirugarrenen eskubideei. Epealdia luzatzeko erabakia entitate interesdunei jakinarazi behar zaie.

2.– Bai entitate interesdunen eskaera, bai epealdia luzatzeko erabakia justifikaziorako epealdia amaitu baino lehen gauzatu behar dira. Mugaeguneratutako epealdiak ezin izango dira luzatu. Epealdiak luzatzeari edo ez luzatzeari buruzko erabakien aurka ez dago errekurtsoa jartzerik.

Artículo 7.– Práctica de la notificación en la tramitación presencial y telemática.

1.– La notificación se entenderá practicada en el caso de tramitación presencial en la fecha en que la entidad interesada o, en su caso, representante legal o persona autorizada, firme el acuse de recibo de Correos, y el plazo establecido en cada caso comenzará a contar a partir del día siguiente al de la recepción por parte de aquélla del acto objeto de notificación.

2.– En el caso de la tramitación telemática, por el contrario, conforme a lo dispuesto en el artículo 22.1 del Decreto 232/2007, de 18 de diciembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos, informáticos y telemáticos en los procedimientos administrativos, la notificación se entenderá practicada en el momento en el que la entidad interesada o, en su caso, representante legal o persona autorizada, firme electrónicamente su recepción, y el plazo establecido en cada caso comenzará a contar a partir del día siguiente al de la firma electrónica de la recepción por parte de aquélla del acto objeto de notificación.

Transcurrido el plazo establecido de 10 días desde la puesta a disposición de la entidad interesada o, en su caso, representante legal o persona autorizada, del acto objeto de notificación en la dirección electrónica a que se refiere el artículo 23 del mencionado Decreto sin que aquélla acceda a su contenido, se entenderá que la notificación ha sido rechazada. En este caso, se tendrá por efectuado el trámite siguiéndose el procedimiento, salvo que de oficio o a instancia de la persona o entidad destinataria se compruebe la imposibilidad técnica o material del acceso.

Artículo 8.– Plazo de justificación de la subvención.

El plazo para la presentación de la documentación acreditativa de la justificación de la subvención otorgada será de dos meses contados a partir de la fecha de finalización del programa o actividad subvencionado y, en todo caso, no posterior al 28 de febrero de 2011.

Artículo 9.– Ampliación del plazo de justificación.

1.– El órgano concedente de la subvención podrá conceder de oficio o a petición de las entidades interesadas una ampliación del plazo establecido para la presentación de la justificación, siempre que aquélla no exceda de la mitad de mismo y siempre que con ello no se perjudiquen derechos de tercero alguno. El acuerdo de ampliación deberá ser notificado a las entidades interesadas.

2.– Tanto la petición de las entidades interesadas como la decisión sobre la ampliación deberán producirse, en todo caso, antes del vencimiento del plazo de justificación, no siendo en ningún caso objeto de ampliación el plazo ya vencido. Los acuerdos sobre ampliación de plazo o sobre su denegación no serán susceptibles de recursos.

10. artikulua.– Diru-laguntzaren likidazioa.

1.– Irizpideak.

a) Justifikatutako zenbatekoa eskabidearekin batera aurkeztutako gastu-aurrekontua baino gehiago izateak ez du emango eskubiderik hasieran onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa gehitzeko.

b) Diru-laguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, emate-ebazpena aldatuko da, eta gauza bera gertatuko da estatuko zein nazioarteko beste administrazio edo entitate publiko zein pribatu batzuek emandako diru-laguntzekin bat eginez gero, jasotako guztirako diru-kopurua diru-laguntzaren xede izan den jardueren kostua baino gehiago izanez gero ere. Halako kasuetan entitate onuradunak jasotako diru-kopuruak itzuli beharko ditu.

b.1.– Hasieran esleitutako diru-laguntzen aldaketa balizkoek eragin ditzaketen diru-kopuruen murrizketak modu proportzionalean aplikatuko dira, kontuan hartuz zenbat proiektu aurkeztu diren eta zenbat burutu diren eta zenbat diru aurreikusi zen burutzapen-aurrekontuan eta benetan zenbat erabili den.

b.2.– Diruz lagundutako proiektuaren zein jardueraren burutzapenean alterazio partzialen bat gertatuz gero, itzuli beharreko zenbatekoa finkatzeko proportzionaltasunaren printzipioa aplikatuko da, eta kontuan edukiko da erabateko burutzapenean intzidentzia adierazgarririk izan denentz eta onuradunak konpromiso guztiak betetzeko asmoarekin jardun duen ala ez.

b.2.1.– Hori dela eta, diru-laguntzaren xedea bete arren horretarako aurreikusitako aurrekontuaren eta benetan erabilitako diru-kopuruaren artean aldea gertatzen bada, ondokoak gertatu beharko dira diru-laguntzaren zenbatekoa ez txikitzeko:

b.2.1.1.– Burutzapenak eragindako gastuaren eta hasierako aurrekontuaren arteko aldea % 15 baino gehiago ez izatea.

b.2.1.2.– Behin betiko diru-laguntza ez izatea burutzapen-gastuaren % 70 baino gehiago.

b.2.1.3.– Gainfinantzaketarik ez gertatzea.

b.2.2.– Bestela, bidezko likidazioa egingo da eta emandako diru-laguntzatik bete ez den alderdiari dagokion zenbatekoa kenduko da.

2.– Prozedura.

Diru-laguntza justifikatzeko bidalitako dokumentazioa aztertu ondoren, dena delako arrazoiarengatik bigarren zatiaren ordainketa gutxitu behar izatekotan edo hura ezeztatu behar izatekotan, eta, hala badagokio, jasotakoa, osorik nahiz haren zati bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar izanez gero, Kulturako sailburuak kitapen-ebazpen indibidualizatua emango du egiaztagiriak

Artículo 10.– Liquidación de la subvención.

1.– Criterios.

a) Bajo ninguna circunstancia la justificación de gastos superior al presupuesto de gastos inicialmente presentado dará derecho a incremento alguno en la subvención inicialmente reconocida.

b) Toda alteración en las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de estas subvenciones y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones de otras Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales que superen el coste de la actividad subvencionada, dará lugar a la modificación de la resolución de concesión, debiendo la entidad beneficiaria proceder al reintegro de las cantidades percibidas, en su caso.

b.1.– Las posibles modificaciones de las resoluciones de concesión se realizarán de modo proporcional y atenderán al número final de proyectos presentados y definitivamente realizados, así como al presupuesto de ejecución previsto y el finalmente ejecutado.

b.2.– En el supuesto de alteraciones parciales en la ejecución del proyecto o actividad subvencionada, la cantidad que deba ser objeto de reintegro se determinará en aplicación del principio de proporcionalidad y teniendo en cuenta que no incidan significativamente en aquélla y se acredite por las entidades beneficiarias una actuación inequívocamente tendente a la satisfacción de compromisos.

b.2.1.– En este sentido, cuando, aun habiéndose cumplido el objeto de la actividad subvencionada, exista una diferencia entre el presupuesto de ejecución previsto y el finalmente ejecutado, no se procederá a la disminución del importe de la subvención concedida siempre y cuando simultáneamente concurran las siguientes circunstancias:

b.2.1.1.– Que la diferencia entre el gasto finalmente ejecutado y el inicialmente presupuestado sea igual o menor al 15%.

b.2.1.2.– Que la ayuda definitiva resultante no supere el 70% del gasto finalmente ejecutado.

b.2.1.3.– Que no se produzca sobrefinanciación.

b.2.2.– En caso contrario, se procederá a realización de la liquidación correspondiente, minorando el importe de la subvención adjudicada en función de la circunstancia que no haya concurrido.

2.– Procedimiento.

Cuando analizada la documentación remitida a los efectos de justificación de la subvención proceda, por el motivo que fuera, la minoración del segundo abono de la misma o la anulación total del mismo y, en su caso, la obligación de reintegro a la Tesorería General del País Vasco de la totalidad o parte de lo ya percibido, por la Consejera de Cultura se dictará, en el plazo de dos meses contado a partir de la finaliza-

aurkezteko epealdia bukatzen denetik bi hilabeteko pasatu baino lehen. Halaber, bidezkoa izanez gero, diru itzulketa egin ahal izateko bi hilabeteko epealdia emango du ebazpenaren jakinarazpen-idazkia jasotzen denetik. Ebazpen honek administrazio-bidea agortu du; beraren aurka ondoko bi errekurtsoak jar daitezke: berraztertzeko errekurtsoa ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epealdian, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskadiko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, jakinarazpenaren dataren biharamunetik bi hilabete pasatu baino lehen.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetan arautu ez diren alderdiei dagokienez, diru-laguntzen arloko gaietan Euskadiko Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onetsi duen azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilean ezarritakoari jarraituko zaio, eta prozedurari dagozkion gaietan Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoari.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek administrazio-bidea agortu du; beraren aurka entitate interesdunek hautazko berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete Kulturako sailburuari argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskadiko Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak.

Gasteiz, 2010eko irailaren 8a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

ción del plazo de presentación de justificantes, Resolución de Liquidación individualizada, otorgando, en su caso, un plazo de dos meses desde la recepción de la misma para proceder al reintegro correspondiente. Esta resolución pondrá fin a la vía administrativa y contra ella, potestativamente, podrá interponerse recurso de reposición ante el órgano que ha dictado la resolución (Consejera de Cultura), en el plazo de un mes, o bien, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de su notificación.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

En lo no previsto en la presente Orden en materia subvencional será de aplicación el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y, en materia de procedimiento, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, podrán las entidades interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a su publicación o bien recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de septiembre de 2010.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

I. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZAREN EDO LAGUNTZAREN ESKABIDEA

ENTITATE ESKATZAILEA IDENTIFIKATZEKO DATUAK (TITULARRA)

Entitatearen izena: .....IFK: .....
Helbidea: .....
Posta-kodea: .....Herria: ..... Probintzia: .....
Tel.: ..... Sakelakoa: ..... Faxa: .....
Posta elektronikoa (e-maila): .....
Web-orria: .....

ENTITATE ESKATZAILEAREN LEGEZKO ORDEZKARITZAREN DATUAK

Pertsona fisikoa:
Izen-abizenak: .....NAN: .....
